

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen atalean, gure negozio-ereduak ondo funtziona dezan beharrezkoa izango ditugun aktibo nagusiak deskribatzen dira. Hemen enpresaren funtzionamendu eta lehiakortasunerako ezinbestekoak diren elementuak aurki ditzakegu. Hauek enpresaren arrakasta eta iraunkortasuna bermatzeko garrantzitsuak izan daitezke.

Funtsezko baliabideetan baliabide fisikoen daude, hemen lokala izango dugu, lokala asko erabiliko dugu, laneko funtsezko espazioa izango baita. Jangela ere garrantzia handiko espazioa da gure enpresan, gure bezeroek bertan gure produktuak kontsumituko dituztelako eta horrekin lotuta, sukaldeko tresnak ere sartuko lirateke. Noski ahaztu gabe lehengaiak ere baliabide fisikoetan sartuko direla.



Baliabide intelektualetan, gure enpresa sortzeko orduan ekologiarri eta osasunari eman diogun garrantzia azaltzen da. Horrez gain, giza baliabideak ere badaude, atal honetan geuk ekarriko ditugun ekarpenak. Hasteko Xabi dugu, herrian antolatutako sukaldari kurtsoan parte hartu duen mutila da, haren gurasoek ostatua dute eta asteburuetan laguntzera joaten da. Sukaldean abila eta azkarra da, bere denbora librean sukaldean igarotzea gustuko du, beraz, hark, onura asko ekarriko dizkigu enpresaren



funtzionamendurako. Ondoren Markel dugu, mutil alaia, hiztuna eta adiskidetsu aparta. Markelek bezeroak mantentzeko eta erakartzeko gaitasuna du, orain bere osabaren tabernan lanean baitago, eta bezeroak eta osaba oso pozik daude berarekin. Bukatzeko enpresarentzat onuragarriak izango diren bi neska ditugu, Maialen eta Naia, hauek jendea erakartzen, hitzegiten eta saltzen bikainak dira. Horrez gain, azkartasuna ere badute eta herriko festetako txosnetan behin baina gehiagotan egin dute lan biak batera. Hau da, oso ondo koordinatzen dira eta taldean egiten dute lan.

Finantza baliabideetan bankuari eskatuko diogun mailegua eta gure taldeko partaide bakoitzak jarriko duen dirua sartzen da. Hau beharrezko baliabidea izango da gure enpresa eraikitzeko beharrezko izango baita.